

Pobreziaren aurkako Herri Ekimena Nafarroako Parlamentura joango da

Proposamenaren aldeko 8.000 sinadurak bilduta dauzka dagoeneko talde eragileak

Pobreziari eta langabe-tuen bazterketari aurre egiteko lege proiektua bul-tzatzen ari den Herri Ekimen Legegileak 8.000 sinadura bildu ditu dagoeneko Nafarroan, eta urriaren 21a baino lehen kopuru hori bikoiztu asmo dute. Horrezaz gainera, 112 talderen elkartasuna jaso dute proposamenaren susta-tzaileek. Behin sinadura guz-tiak bilduta, proiektua Parla-mentura bidaliko da, bertan eztabaida eta onar dadin.

Alberto Barandiaran / Iruñea

HERRI EKIMEN LEGEGILEA taldekoak pozik azaldu ziren atzo, gizartearen erantzunarengatik, 112 taldek eskaini baitiete euren elkartasuna duten egitasmoaren inguruan. Talde horien artean hainbat elizatako kontseiluak daude, talde feministak, unibers-tsitute taldeak, sindikatuak —EILAS, CGT, LAB, ESK, Ezker Sindikala, ELA, EHNE eta CCOO—, Gobernuz Kanpoko Erakundeak, Enpresa Batzordeak —Telefonica, Wolkswagen, Posta Zerbitzukoak eta Iparlat, besteak beste—, talde antimilita-ristak, bizilagunen elkarteak eta beste.

Bi dira erreibindikazio arlo nagusiak. Alde batetik, langileei dagozkienak; eta bestetik, langa-be-tuenak. Lan mundutik bertatik langabeziaren aurka borroka-tzeko neurrien artean Herri Eki-menekoek proposatzen dute aste-ko lanorduak 35era jaistea, jubilazioa 60 urterekin izatea,



Makina bat mobilizazio egin dituzte langileek Euskal Herrian 35 orduko lan astea galdegiteko.

SANTIAGO JIMENEZ

ordu estrak kentzea eta behin-behineko kontratuen aurka egi-tea. Bestalde, langabezian dau-den guztientzat oinarritzko solda-ta proposatzen du taldeak: 68.000 pezeta inguru (2.700 libe-ra).

Nafarroako Gobernuak soil-soilik bere kargu dituen langileen gainean erabaki dezakeenez, fun-tzionarioei dagokie neurri hori, eta hor lan astea 35 ordu inguru-koa denez, 32 jaistea proposatu-ko dute Herri Ekimenekoek. Vicente Duque talde horretako bozeramaileak atzo azaldu zue-nez, funtzionarioena lehen urra-tsa izango litzateke, lege proiektu-

tua gero eremu pribatura ere era-mateko asmoa baitute.

5.600 lagun gizartetik baztertuta

Elkartekoen datuen arabera, 5.600 lagun baztertuta daude Nafarroan pobrezia dela-kausa, eta 26.000 inguru dira langabezian direnak. Horietatik erdiek ez dute langabezi saririk jasotzen. Duqueren ustez, hori amaitzeko neurriek ez lukete gastu handirik ekarriko, kon-tuan hartuta langabezia ez dela beste elkarteetan bezain larria.

Gogoratu behar da antzeko egitasmoa aurkeztu zela Gasteiz-ko Parlamentuan, 82.053 sina-

dura bildu ondoren —30.000 behar ziren—, baina proposame-na Parlamentuan sartu bazen ere, hurrengo legegintzaldira arte itxaron beharko du, mozioak ez zuelako izan EAJren babesak.

Nafarroa, bistan denez, aurre-ratu egingo da orain. Atzo Vicente Duque bozeramaileak azaldu zuenez, urriaren 24an Herri Eki-men Legegilearen Eguna ospatu nahi dute Nafarroa osoan, eta aste honetan bertan informazio-autobusa paratu dute Iruñean, Yanguas y Miranda ondoko apar-kalekuan. Han informazio orriak banatzen dituzte, jendeak propo-samenaren berri izan dezan. X

Margoa izango da nagusi hilaren 26tik 28ra Bilboko Erakustazokan

Polveri 98 azokan pintura hautsaren arloan izan diren berrikuntzak ikusi ahal izango dira

Erredakzioa / Bilbo

PINTURA izango da protago-nista hilaren 26tik 28ra bitar-tean Bilboko Nazioarteko Era-kustazokan. Polveri 98 era-kusketan margo hautsaren arloan izandako azken berri-kuntzak ezagutu ahal izango dira; baita pintura mota horrek etorkizunean izango di-tuen joerak. Lau mila metro koadrotan 60 enpresatik gora bilduko dira azken berrikun-tzak ezagutarazi eta horiei bu-ruz aritzeko asmoz.

Nazioarteko gunee hau Ibe-riako penintsulan egiten den bakarra da. Kontrata bidez lan egiten duten enpresarien-tzat, teknikarientzat, banake-ta arduradunentzat eta pinto-re enpresetako zuzendarien-tzat oso garrantzitsua da.

Poliveri azokan, makin-en-tzako margo bereziak, plasti-koak eta instalazioetakoak izango dira nagusi. Baita mar-goaren erabilerarako osaga-riak, pintatutako produk-tuen kalitatea neurtzeko gai-luak eta margoa jartzeko zein kentzeko zerbitzuak.

Gai horietaz aritzeko, egu-nero hitzaldiak edota mahai-inguruak izango dira. Mahai-inguruetan parte hartu nahi izanez gero, hala ere, aldez au-rretik izena eman beharra da-go. Feriaren antolatzaileek esan dutenez, egin daitezkeen salerosketak bezain garrain-tzitsuak dira egingo dituzten mintegiak. X

Ordezkaritzaren % 25 lortu nahi du ELAk Nafarroan

Ekainera bitartean 90.000 langile inguruk bozkatuko dute 1.600 enpresatan

Europa Press / Iruñea

NAFARROAN abiatu berri diren hauteskunde sindikaletan orde-zkaritzaren % 25 lortu nahi du ELA sindikatuak, Nafarroako idazkari nagusi Jose Maria Otaegi atzo Iruñean egin agerraldian jakinarazi zuenez. Hauteskunde prozesua ekainera arte iraungo du Nafarroan; denbora tarte horretan, herrialdeko 90.000 langile inguruk bozkatuko dute euren ordezkari sindikal berriak aukeratzeko.

Nafarroako 1.600 enpresa ingurutan egiten dituzte hautes-kundeak, eta, denera, 5.000 ordezkari sindikaletatik 3.650 inguru berrituko dituzte langile-ek.

ELAk atzo emandako datuen

arabera, 1990. urtetik 1998.era, % 5,64 igo da euskal sindikatu-a, eta ordezkartza sindikalaren % 20,82 du; CCOO sindikatu-a, berriz, % 0,99 igo da, eta orde-zkaritzaren % 20,78 du. LABen igoera % 0,8koa izan da, ELAk plazaratu datuen arabera, eta ordezkartza sindikalaren % 11,46 du. UGT sindikatuak, bestalde, % 5,96 egin du behera, eta ordezkartzaaren % 30,98 du.

Datu horien inguruan «kon-tent» agertu zen ELAko Nafarroa-ko ordezkari nagusi Jose Maria Otaegi, eta sindikatuaren igoera enpresetan egindako lanaren emaitza dela azpimarratu zuen. ELA sindikatuak idazkari nagusi Jose Elorrietaren ustez, bestal-de, UGT eta CCOO sindikatu-en beherantzko joera berretsiko dute



ELAko buruzagiak baikor agertu dira hauteskun-deetan aterako dituzten emaitzei begira.

MIKEL UHARTE

abian diren hauteskundeek: «Sindikalismoa egiteko modu berriak bilatu dituen mugimen-dua gora doa. Sindikalismo in-stituzionalaren aurrean modu alternatiboak bilatu dituen sin-

dikalismoak etorkizun handia du Nafarroan, eta hori, euskal sindikalismoa da. Horrek age-rian uzten du Nafarroako herrialdea askotarikoa dela», adierazi zuen Jose Elorrietak.

ELAko idazkari nagusiak uste du, halaber, euskal sindikali-smoak Nafarroako ordezkartza-ren % 40 beteko duela abian den hauteskunde prozesua amaitu ondoren. X